



TALAI

maiatza  
mayo  
1999

Hausnarketarako Aldizkaria  
Revista para el Debate

*Argitaratzailea*  
Editor  
TALAI Fundazioa  
PK./Apdo.: 89 / 20080 Donostia  
Tel.: 943.20.18.37  
Fax: 943.20.32.22

*Zuzendaritza*  
Dirección  
Kepa Aulestia  
Patxi Baztarrika

*Koordinazioa*  
Maxen Zinkunegi

*Diseinua eta maketazioa*  
Junkal Motxaile

*Ilustrazioak / Argazkiak*  
Luis Emaldi Mitxelena

*Inprimaketa*  
Itxaropena, S.A.  
*Banatzailea*  
BITARTE (943.55.05.72)

© TALAI Fundazioa  
© Egileek / Autores  
© Junkal Motxaile  
(azala eta diseinua)  
© Luis Emaldi Mitxelena  
(ilustrazioak eta argazkiak)

ISSN: 1138/2821  
L.G. / D.L.: SS-1129/97


*Argitaratzailea ez dator bat, nahitaez, aldizkari honetan argitaratutako iritziekin.*  
*El editor no se identifica, necesariamente, con las opiniones publicadas en la revista.*

Eusko Jaureritzaren Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskari Sailak eta Donostiako Udako Kultura Patronatuak diruz lagundu dute TALAIaren zenbaki hau.

El Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, el Departamento de Cultura y Euskera de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Patronato de Cultura del Ayuntamiento de San Sebastián han concedido subvención para la publicación de este número de TALAI.

# Aurkibidea Sumario

Aurkezpena / Presentación	4
Hezur eta mami / En profundidad	
Egibar - Jáuregui	6
<i>Un diálogo sin concesiones</i>	
Hainbat aburu / Puntos de vista	
El conflicto de Québec.	44
<i>Juan Soroeta Liceras</i>	
"Soplar no es tocar la flauta; tenéis que mover los dedos".	56
<i>Txema Montero</i>	
Lekutxo bat Mediterraneoan.	64
<i>Koldo Izagirre</i>	
Sufrimenduak ondutako uzra.	72
<i>Iñaki Zabaleta Urkiola</i>	
Otro testamento vasco (e irlandés).	82
<i>Iñigo Gurruchaga</i>	
Jardun librean / Tribuna abierta	
La víctima absuelta.	96
<i>Ana Rosa Gómez Moral</i>	
Trantsizio politikoa: bizikidetzaz hobertzeko aukera.	102
<i>Maixux Rekalde</i>	
Sobre la extranjería como fenómeno socio-cultural.	109
<i>Eduardo J. Ruiz Vieytes</i>	
Esperoan.	119
<i>Rikardo Arregi Diaz de Heredia</i>	
Paperak solte	
Min etsiak eta etsimina.	
<i>Anjel Lertxundi</i>	




# Koldo Izagirre

## LEKUTXO BAT MEDITERRANIOAN

*“Egia esan, Hego Euskal Herria  
gertu dago independentziarako,  
baina inork ez daki nola libratuko den  
armada espainiarraren atzaparretatik”*

(Guy Heraud. Hacia la abolición de las soberanías  
para la salvación de los pueblos.  
HAEE-IVAP, Oñati, 1989)

Espainia estatu mediebala da, Frantzia estatu jakobinoa da. Geure xalotasun politikoan maiz pentsatu izan dugu, edo halako itxaropen batean bizi izan gara une historiko hurbil batean, zanpatzen gaituzten estatuez goragoko botere handiago baten gerizpera bilduta bermatuko genituela gure naziotasuna eta gure kulturaren etorkizuna. Europa izeneko entelekia batek babestu behar gintuen Frantziaren eta Espainiaren bortxakeriatik. Ez da hala izango, zoritxarrez. Etorkizuneko Europa zabal eta anitz hori ez da berehala gauzatuko, Europa bera ere goragoko beste botere baten morroi bilakatua delako. Eta duela bost bat urte Clintonek, Bonn bisitatu zuenean, garbi utzi zuen Europa seguru eta demokratiko baten berrikuntzan Alemania zutela EEBBek lehenesten... uler bedi administratzaile izendarzen. Oso oker ez banago, Frantziak, zapuztuta, saio nuklearrak egin zituen orduan “Ni ere banaizela!” esanez edo. Utikan mosaikoak, zabal dadila botere ekonomikoa azken bazterteraino, produkzio, distribuzio eta kontsumo planifikatu batean. Europa, beraz, bahitua dute berriro. Merkatariak inposatu dira, eta ezkerria ez da gai, oro har, bere buruari galdera xume hau egiteko: zer da Europa? Inork ez du estatua zalantzan jartzen, eta zinismorik handienean hartzen digute kargu gure nazionalismo arriskugarriaz. Nola



irakatsi behar diegu ezker zahar eta berrizahartuei Europaren etsaia ez dela gure nazionalismoa, Europako estatuen arteko lehia baino?

Europa bahitu digute, baina mitoak badu indarrrik oraino. Kreta behintzat hantxe dago, Mediterraneoan.

### GLOBALTASUNA

Inguratzen gaituen ideologia neoliberal nagusitu honek behin eta berriz errepikatzen du aberastasuna sortzen duela, aberastasuna –o, tempora...!– lanpostuak sortze hutsari esan behar baldin badio ere, gajoak. Aberastasuna hartzen du ahotan, baina ez du inoiz esaten merkatuak ez dituela banatzen produktibitatearen mozkinak. Aitzitik, pribilegiatuen eskuetan uzten ditu osorik: ehuneko hogeiak kontsumitzen du ehuneko laurogeia munduan. Krisia gizarte-ereduarena da, ez politika sozia- len finantziagaitzarena. Merkatuaren teologiaren izenean ezin genitzake eskubide politikoak eta eskubide ekonomikoak bereizi. Bata bestearen euskarri dira.

Pentsamendu bakar guztiak bezala, mundializazioak totalitarismoa dakar. Uniformizazioak bereizkuntzak berdintzen ditu, eta orduan al- daketa historikoaren alternatiba eragozten da: horixe da neoliberalis- moaren atzean eta berdinkeraren hondoan dagoen arriskua. Historia amai dadila nahi dute neoliberalak, status quoa betikotu nahi dute, eta ezker baten modernatzea ez da izan pentsamendu honen kolonizazioa besterik. Ongi ezagutu dugu bilakaera hori euskaldunok. Ikusiak iku- sita, tesi defentsiboetan uzkurto barik, bide eta baliabide berrien pros- pekzioa esango nuke nik saiatu behar duela ezkerak. Etengabeko dia- lektika batean biziko bada ere etsipenaren eta esperantzaren artean, amorraren eta ametsaren artean.

**MARXISMOAREN GIZATASUNA**

Marxismoak ondorioztatua zuen moduan, kapitalismo lehiakorra kapitalismo monopolista ekarri du, ludi mailakoa gainera. Eta marxismoak dena ekonomian oinarritzen zuela esaten zuten haietatik inor ezin uka lezake, egun, dependentzia ekonomikoak dependentzia politiko eta kulturala ekarri duela. Baina marxismoak berak irakatsi moduan eta neoliberalismoaren laudatzaileek nahi ez bezala, orain ere nonahi, egunero, Historia gertatzen ari da, era dialektikoan ulertu behar baita inguruaren ondorio garelako hura. Une honetan bertan zer bait ari da historikoki hiltzen, beste zerbaitek ari delako historikoki sortzen. Materialismoaren reduktionistak ezkututzen saiatu diren arren marxismoaren funtsean humanismo handi bat ageri da inoiz baino nabarmenago. Ez dago mekanika hutsik, merkatu librearen ez da inoiz libre mafia desberdinen interesen banaketa da.

Euskal Herrian ere harroaldi batean bizi gara azken hilabeteotan. Eta mugimendu sakonak ematen diren une guztietan gertatzen den antzera, orain ere, hemen, gure herrian, hainbat gauza daude zalantzar jarriak ez ezik hiltzeko zorian: ideiak, sistemak, baliabideak, mugak, estrategiak. Amaitu da uhertua zirudien egoeran ukazintzat hartzen ziren baieztapen biribileen aroa; sukaldaritza berri batean hasi gara, eta ez dago errezetarik. Historia ez dagoela inoiz predeterminatua ikasteko aukera ederra ukan dugu. Interlari, behatzaile, tertuliakide, kazetari eta gure jakile profesionalak barregarri geldituak dira. Ahistoriaren kontra, militanteen jardun libreak lortu ez zuena presoan jarrera moralak lortu du, alegia, ezkerreko prozesu politiko askatzaile orokor baten giltzarri izatea. Gizaki batzuen irimotasuna erabakigarria bilakatu da baldintza objektiboak sortzeko, eta gizatasuna posible dela erakutsi digute. Baldintza objektiboak, nitasunak, baduela munduan zereginik frogatu digute. Marxismo batek desikasarazi egin baldin bazidan ere, nik marxismoan ikasi nuen hori: Mitxel Sarasketak eta Esteban Estebanek izen propioa ezarri diote posibilitateari.


Baina, zinez ote gaude askatasun nazionalari buruz abiatuak?

**LURRIKARA**

Mugimendu sakonak gertatu direla hemen, esan dugu. Laster urtea betekoa duen prozesua adierazteko ageri den termino erabiliena lurrikararena da ordea. Honek, eta Apirilaren 25aren hurbilak, Portugal ekarri didate akordura. Lisboaren hirurdenak suntsitu zituen 1755eko dardara telurikoaren ondoren, Coimbrako Unibertsitateko buru argituei ez zitzaizkien otu auto-da-fe bat egitea baino, herri hilduratuaren atseginerako. Lurrikararen aurkako kontrapozoinik eraginkorrena huraxe

zela erabaki zuten, eta hala erre zituzten zenbait heretiko, Jainkoari erregu baino Lurrari aintza zirudien zeremonia lasaigarrian.

Zer sakrifizio antolatuko du estatuak, lurrikarak suntsitu diren estrategia berpiztu asmoz? Non joko du, zer amarru ez ote dute asmatuko Guadalajarako Unibertsitateko buru argituek? Ez dakigu, baina buru denez, tregua indarrean jarri zenez gero atertu gabe egin diguten bortxakeria morala bortxakeria fisikoaren ataria besterik ez zela erakusten ari direneon, esan liteke ezker abertzalea erreprimitzen jarraitzeaz



batera PNV estutuko dutela independentistekin eginiko hitzarmena hautsi dezan. Bihar, etzi, apika uste baino lehenago, "zazpi hildakok" iratzarriko gaituzte HBk garaiz kritikatzeko eta irudimenez errentagarri bideratzen jakin ez zuen kale-borrokaz mozomotutako ekintza batean. Edo alde batetik estutu eta bestetik limurtu egiten ote du estatuak gure alderdi zaharra, jakinik eta samalda sabindarrak ez direla sobera menturazale? Baluke estatuak aliatu ederrik PNVren beraren barruan.

## LURRAK IRENTSIKO DUENA

Espainiako ezkerren diskurtso higituaren aurrean eta Euskal Herriko alderdi autonomisten jardura ikusita, ez da harrokeria esatea sor diren gauza politikoki interesgarri bakanak politikagintza tradizionale urrun egon den jardun sasi-sasitar baten altzoan zaizkigula azaldu. Erresistentzia ederra da. Baina erresistentziaren beraren izaerak ekarri ohi inizatiba ausartenak zapuztea. Erresistentziak erre egiten du. Bada ondorio negatiboak metatzen, formularen errepikapenean konforman eta kontrakotasunean gotortzea bezala. "Zer egin behar dut gaur?" detzen zion goizero ezker abertzaleko politikoak bere buruari. Eta er tzun berdina goizero: "Gaur ere pankarta atzean!" Eutsi. Tinko. Ber Irmo. Harro. Gogor. Eta autosustatze horren azpian irudimenaren tzea, estereotipoen errepikatzea. Hori bai, heroikotasunean.

Orain beste ikara bat sentituko du ezker abertzaleko politikoak go zero. Ez baitu galdera erretoriko bat egin behar, bestelako galdera e behar izaten dio, jadanik, bere buruari goizero, galdera sotil eta beld garri bat: "Nola?" Eta silaba biko adjektibo indartsuak baino, an mordo bat erantsi behar dio. Adierazi. Adostu. Bideratu. Ulertu. B matu. Lortu. Dogmatikotasuna barkagarri baldin bazen estatuan a bekokiz eta bekozko egin behar zitzaiolako, orain hari bezain go egin behar dio herrikeria demagogikoari aurre. Amaitua da borroka mistika, borroka amaitu ez den arren.

Eta, apurka, han-hemen batzuetan, Frantziar, Espainiar, Europar Amerikan ere sortu izan dugun elkartasunak beste modu batzuk ga beharko ditu. Gudaritzaren lilura amaitua da. Gebaristak ez ginel kubrituko dute, eta batek baino gehiagok ezusteko handia hartuko

## SORTZEN ARI DENA

Aztigaiak, bada, lurrikara sortu zuen bere arao ikasi berria mu Jakingo ote du askatu dituen indarrak behar bezala bideratzen, zaharrak apurtzen, oinarri berri sendoak argitaratzen? Esan ohi da bakoitzak bere aurpegia daukala. Tradizio udaltzale handia dau jakin dugu berriki, eta hartan finkatu behar omen dugu etorkizun

Asmatzeko askatasunik gabe ez baitago transformazio kualitat iraultza bakoitza da heresia bat. Historiak bere lege objektiboak baditu, egia da, halaberean, lege horiek gizakiek egiten dituzte mentu subjektiboak —esan dezagun berriro— zerikusi handia dau torian, eta horregatik burutu ahal izan zen iraultza Errusian, eta laterran edo Alemanian, baldintza objektiboek iragartzen zuten m Ber gauza esaten ahal dugu Kubaz. Ez dago formularik, zorionz tean eragiteko ahalmena daukagu! Eta ezker abertzaleak, noriku

karako gaitasun handia dauka oraindik ere... Gure askatasun nazio- laren baldintza konkretuak jartzea ezker abertzalearen zeregin nagusia orain, gurea ez dadin izan ekaineko gau bateko ametsa.

Lurrikara baino lehen euskalduna etsia emana zegoen, determinis- o garratz batean eroria zen, posible txarrean bizi zen, txarren alda- nean. Euskal Herria triste bizitzera kondenatua zegoen, tristatu egi- zuten faktoreak betiraungoak zirelako... Orain, ez bat eta ez bi, ologo ofizialek huts egin dutela ikusten dugu; boterearen razionali- zan finkatu uste izan zirenek, isildu egin behar izan dute. Eta hori, oru beharra dago, ezker abertzaleari zor diogu.

Lurrikarak, beraz, espektatiba handiak sortu ditu. Erantzukizun bel- garria dauka ezker abertzaleak honetan, EHren baliabideak ez baitira ezinak, eta desfase handia sor liteke espero denetik lor litekeenera.

## DESTINITATEAREN IZPIRITUA

urpera ditzagun dogmak eta erretorikak, baina ez dezagun erabaki, ats berrien irudi, ezerk ez duela balio gure ondarean: jipioian ikasi- zuhurtzia, ustekabeko elkartasunekiko ernetasuna, are okerrago- prestakuntza. Izan ere, sasi-sasitar izatetik agerian klandestino iza- pasa behar baitu ezker abertzaleak. "Etengabeko klandestinitate ta batean" biziko da, ezinbestez, gaurko gizarte honetan ezker- elburuak aldarrikatzen dituen ezkerrek. Eta horrek zuloetara ba- matza ere, ezkerren diskurtsoak kontra-diskurtso izan behar duela, kulturak kontrakultura izan behar duela, uste dut nik.

er den ezkerrekoa izatea? Egoera konkreteru baten azterketa konkretua ko gai izatea, eta honenbestez une oro etsai nagusia nor den eta non en jakitea, klase jarrerak hartzeko. Klandestino, baina agerian: ezke- ez du inoiz eskuina bentzutuko ezkerria izateaz lotsatuta. Eta mundu riko honetan, ezkerren irudia ere, kontra-irudi bat izan behar du tte Bizimodu bat. Etika eta estetika, aldi berean. Ahulezia ez baina naren adierazgarri. "Aitaren etxean" baldin bagaude, eta hura defen- o badugu, ikas dezagun poema osoa, ikas dezagun zeren kontra de- in behar dugun: "otsoen kontra, sikatearen kontra, lukurreriaren kon- stiziazaren kontra, defenditu eginen dut nire aitaren etxea".

## NURAKO BIDEAN

ere ere, gobernu autonomikoak eta diputazioak botere diren an behintzat, kontra-botere gisa ulertu behar duela ezkerrek, o nuke. Ez larderia ematen duen makila bezala, interes oroko- zenean kudeatzeko ahalmena bezala baizik. Ezkerrek ezin du tso kultural progresista eta abertzale batean oinarritu, egun

proposatzen zaigun eredu ekonomikoa errotik ukatu gabe. Modelo ekonomiko eskuindarra eta modelo kultural ezkertiarra ez dira uzta-rriko: ekonomian hasten da, hain zuzen, ezkerraren desberdintasun kulturala.

Askotan entzunak gara boterean, gobernuan, kudeaketan, alde batera utzi behar dela pentsamendu politikoa, gestioak daukala lehentasuna. Zer da politika ordea, pentsamenduaren obratzea besterik? Politika pentsamendu hutsa ez den antzera, gestio hutsa ez da neutroa. Gestiorako erabaki guztien eta bakoitzaren oinarrian dago ideologia baten agindua. Kudeaketa ideologizatu bat espero dugu gure ezkerragandik. Berak erein behar du aldaketa eta transformazioaren kultura, berak sortu behar du imaginario praktiko bat.

AMETSA AHANTZI GABE

Ezkerrak ezin du orain, gobernu lanak –erantzukizunak, esaten dute deusean erantzule egiten ez direnek– hartu beharko dituelako estakuruan bere amorrua, bere errebeldia sena, bere ametsa ahantzi... Ezkerra ez dago interesen logikak ezarritako baldintza eta mugetan gobernatzerik kondenatua, eta ez dirudi onargarri denik ametsak etorkizunera botatzea, oraina eskuinak menderatzen duelako. Ezker abertzalea EAEko gobernuan eta diputazioetan sartuko da noski, hartarako borondatea erakutsi du. Baina ez da nahikoa ezkerra gobernura iristea, kartera batzuk hartzea. Beste era batean gobernatu behar du: hobeto, eta bate ere hobeto. Desberdin, erran nahi baita.

Botereak ametsa gauzatzen hasteko besterik ez du balio. Hain hurbil daukagu iragan kolpatua, hain minbera gaude... Horrenbeste sakrifizio, horrenbeste porrot, horrenbeste tortura ezin litezke ahaztu. Hilduratzte hori guztia, ezin zitekeen kudeaketatxo batzuk eskuratzeko izan. Zerbait jasoago merezi du, eta hartara besterik ez da sendatuko. Berbakeriak izpiritu asko kontsolatu ditu, baina ezin du gure gizartea aldarazi. Gure mendeku historikoa, politika egiten jartzea da, ametsari forma ematen hastea.

Ezker abertzaleak egin behar duena izugarri garrantzitsua da. Komunistek hondatu dute komunismoa, sozialistek eragotzi dute sozialismoa. Eskuinaren kontra eta bere historiaren kontra azaldu behar du ezkerrak, ezker abertzaleak. Interesen eskuinaren aurka, baloreen ezkerra erakutsi behar du, ezker tradizionala egiten ausartu ez dena. Orain ezin du amorrua, ametsa eta herria alde bat utzi. Orain utopiaren beharra inoiz baino handiagoa du... eta zer esanik ez nolabaiteko liberazio nazional burges batera hurbiltzen baldin bagara! Utopiaren bidean bakarrik lortuko dugu Euskal Herria soberano bat humanitateari interesgarria izan dakion.

MEDITERRANIOA

Panpa urrunean, bere onbu maitearen gerizpean menturaz, sortu zuen Pedro Mari Otañok, duela ehun urte, Zazpiak Bat bertso-poema ederra. Bazuen itsasoaren berri, beraz, hura egin zuenean. Hartan, zatitzen zaituen Bidasoaz ari delarik, "Hutsa balitz itsasoa!" egiten du haspean. Alegia, Atlantikoaren adinako itsasoa balitz Bidasoa, erraz iragaien ahal genukeela, Santiago zubia baino askoz lasaiago... Halakoak dira itsasoak, biderik ez dute eta horregatik dira batetik besterako. Atlantikoa lehorra balitz, Otañok ez zuen inoiz Panpa joko. Mediterraneoan irez delako ezagutu zuen Arabiak Grezia, Iberiak Erroma, Mendebaleak Ekialdea. Joan-etorrien eta hartu-emanen eredu da Mediterraneoan, elkargintzaren eta mestizaiaren paradigma. Kulturen mosaiko bat, estio topikoak agintzen duen moduan esatearren. Hantxe nahi genuke gure ere, geure uharte txikia. Bestetara eragotzen gaituen Kantauri horietatik urrun, ikusmira luzatzen uzten ez diguten mendioz asperturik, ekutxo baten bila gabiltza Mediterraneoan, maitatzeko. Leienda zaharrek dioenez, Europak herritarren onerako politika bat egin zuen uharre haren antzeko bat.

Gure asmoa unibertatsala baita □

